

KONTROL MOZIOA

ANTOLAMENDU TURISTIKOA BERRITU ETA GOBERNANTZA EREDU BERRIA SUSTATZEARI BURUZ

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko irailaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Turismoa, zeharkako jarduera den aldetik, lurraldean inpaktu eta inertzia handia duen sektore bat da da, eta Donostiako Turismo Gida Planak jasotzen duen bezala, beharrezkoa da, unean uneko erabaki eta ekinbidez gain, jardueraren gaineko epe luzerako argazki bat eskainiko diguten xedeak eta ikuskerak ongi zehaztea.

Planaren arabera, turismoaren garapen orekatua eta iraunkorra lortzea izango da hiriaren erronka estrategikoa, eta ildo horretan, “hiriko turismoaren dinamikei eta ondorioei (positiboek zein negatiboek) erreparatuta, zenbait gomendio eta lan ildo gomendatu behar dira datozen urteetarako”.

Erronka horietako bat, hain zuzen ere, “Donostiako turismoaren gobernantza eta antolamendu eredu berria definitzea” da. Izan ere, turismo jarduera kudeatzeko eta antolatzeko beharren barruan, besteak beste, “turismoaren ondorioen zuzeneko kudeaketa indartzea” edo “turismo behategia diseinatu eta abian jartzea” jasotzen da.

Hori dela eta, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Udal Gobernuak turismoaren kudeaketa iraunkorra eta donostiarren bizi kalitatea bermatzeko neurri eraginkorrak hartzeari buruzko interpelazioa luzatu genion alkate jaunari, baita gobernantza eta antolaketa turistikoaren eredu berria martxan noiz jarriko den galdetu ere. Nabarmena baita, ondorio positiboez gain, negatiboak ere badituela turismoak gaur egun Donostian.

Batzordean, alkateak emandako erantzunean ez da bertako herritarren bizi kalitatea hobetzeko edo bertako herritarrak kontzientziaztea eta inplikatzeko bilatzen duten neurri argigarririk ageri. Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari turismoaren kudeaketa iraunkorra eta donostiarren bizi kalitatea bermatzeko neurri eraginkorrak hartzea.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako 2017-2021 Turismo Gida Planak jasotzen duen turismoaren gobernantza eta antolamendu eredu berria definitzea eta “turismo behategia” diseinatu eta abian jartzea, besteak beste, turismoaren ondorioen zuzeneko kudeaketa indartzeko.

Donostian, 2019ko irailaren 20an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia